

EKINTZA BEREZIAK »»

Urtean hainbat sustapen jarduera antolatuko dugu:

ESKALADA, PIRAGUISMOA, GOLF-A, 3X3 SASKIBALOI txapelketa.

Kirol jardueretan parte hartzeko informazioa

emango dugu:

Arrasateko Santamas krosa, Otalazelai krosa, Uda kanpaina, Xake topaketak, eta abar.

Goi mailako kirol elkarteekin ekintza bereziak:

CAJA LABORAL Saskibaloitza taldeko Euroligako partida bat ikustera irteera, ERREALA: Partidak ikustera joateko sarreren zozketa.

HELBURUAK: »»

- Haurren heziketa eta garapen integrala jolasa eta kirola bide izanik
- Partaidetza eskubidea; Neska eta mutil guztiei irekia
- Kirol aniztasuna, adinaren arabera hastapen eta irakaskuntza egokitua
- Ikasleen arteko harremanak sendotzea
- Kirola egiteko ohitura barneratzea
- Osasun eta higiene ohiturak bereganatzea
- Kirola euskaraz!

OHARRAK: »»

Asegurua: Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola kiroleko egitarauko edozein jardueretan parte hartuko duten 8 urtetik gorako ikasleak poliza baten onuradun izango dira. Aseguru poliza horrek kirola egiteak dakartzan arriskuen erantzunkizuna bermatuko die ondoko kasuetan: Erantzunkizun zibila, gorputz atalen galerengatik kalteordainak, elbarritasun eta heriotza. Aseguru horrek ez du inola ere osasun zerbitzua bere gain hartuko, hau familiako aseguruaren esku dago.

Ikasleen izen ematearekin, LEK-eko ekintzak irauten duten bitartean, baimen osoa ematen da gertaeraren argazki, bideo, pelikula eta grabaketak erabiltzeko.

IZEN EMATEA »»

Izena emateko azken eguna 2010eko irailaren 23a.

Argibideak: Ikastetxeetako telefonoetan (9-12:30/14:30-16:30)

Arizmendi ikastola: 943 772 025

Arrasate Herri Eskola: 943 797 774

Arrasate BH Institutua: 943 794 447

Kurtzebarri LH: 943 790 049

Kurtzebarri BH Institutua: 943 795 740

Luis Ezeiza H.E.: 943 714 938

San Martin H.E.: 945 445 004

Irakazizunak: lek@athlon.es

www.leintz-eskola-kirola.com

Kirolaz hezi,
kirolaz bizi!



Leintz
Eskola
Kirola



ANTOLATZAILEAK

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Aramaio IKASTETXEAK eta UDALAK

BABESLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

KUDEAKETA

Athlon Kop. E.

MONITOREAK

TAFYD, HF Magisteritza edo SHEEko ikasketekin edo hauek burutzen

adox diseinua: www.adoxnet.com



Leintz
Eskola
Kirola

2011
2012

Kirolaz hezi,
kirolaz bizi!



»» ekintzen
programa

KIROL JOLASAK

etapa: 6-8 URTE



LH 1+2

MULTIKIROLA

etapa: 9-12 URTE



LH 3+4+5+6

1.Espezializazioa

etapa: 12-14 URTE



DBH 1+2

EZAUGARRIAK:

Saioak ikastetxean bertan 16:30etatik aurrera
Astean ordubeteko bi saio
Monitore espezialistak
Hiruhilero ikasleen jarraipen txostenak/notak

Saioetan, jolasen bidez, zer landuko dugun:

Gorputzaren ezaguera
Gorputz adierazpena
Rolen bizipena
Espazioan zehar mugitzeko aukerak
Kirol hastapena (LH 2)

Hainbat zapatu goizetan ekintzak antolatuko ditugu, eta horien egutegia aurrerago banatuko dugu.

A) Aukera: Lehiaketa kirola

EZAUGARRIAK:

Saioak Ikastetxeetan edota kiroldegietan 16:30-18:45 bitartean
Astean ordubeteko bi saio
Monitore espezialistak
Hiruhilero ikasleen jarraipen txostenak/notak
Lehiaketa hezigarria
Kirol elkarteekin elkarlana
Kirol aniztasuna

Saioetan landuko ditugun kirolak:

Zapirugbia, atletismoa, eskupilota, minieskubaloia, minisaskibaloia, futbola, herri kirolak.

Zapatu goizetako ekintzen egutegia aurrerago banatuko dugu.

B) Aukera: Txapelketarik gabeko kirola

EZAUGARRIAK:

Saioak Ikastetxeetan edota kiroldegietan 16:30-18:45 bitartean
Astean ordubeteko bi saio
Monitore espezialistak
Kirol aniztasuna

Saioetan landuko ditugun kirolak:

Beisbola, badmintona, batuka, euskal pilota, malabarrak, kirol egokitua, frontenisa, floorball-a, patinajea, material birziklatuarekin jolasak.

MULTIKIROLA ETAPAN OSAGARRIAK

IZANGO DIREN KIROL ESKOLAK

"Multikirolean parte hartzen duten ikasleek, Leintz bailarako kirol elkarteek antolatzen dituzten "KIROL ESKOLETAN" parte hartzeko aukera izango dute ondorengo kiroletan:

Taldekako kirolak:

Areto futbola, errugbia, eskubaloia, futbola eta saskibaloia.

Banakako kirolak:

Atletismoa, eskupilota, igeriketa, tenisa eta txirrindularitza.

A) Aukera: Lehiaketa kirola

EZAUGARRIAK:

Kirol batean edo gehiagotan espezializatzeko aukera
Saioak kirol instalazioetan 16:45etik aurrera
Astean ordubeteko bi saio
Monitore espezializatuak
Kirol elkarteekin elkarlana

KIROL AUKERAK:

1) Taldeko kirolak: zapatu goizetan partidak izango dira

Errugbia, Eskubaloia, Sakibaloia eta Futbola

2) Banakako kirolak: kirolaren arabera, zapatu goizetan topaketak*

Eskupilota, Atletismoa*, Igeriketa, Tenisa, Txirrindularitza*, Xakea, Patinajea.

B) Aukera: Txapelketarik gabeko kirola

EZAUGARRIAK:

Saioak kiroldegietan 16:45etik aurrera
Astean ordubeteko bi saio
Monitore espezialistak
Fitnes-era bideratutako ekintzak

Saioetan landuko ditugun jarduerak:

kiroldegietako eskaintzekin koordinatutakoak izango dira; aerobika, batuka, hip-hop, funky, bodybalance, spinning, bosu, eta abar

www.leintz-eskola-kirola.com



Leintz
Eskola
Kirola



2011
2012